



CHIMAMANDA NGOZI ADICHIE

Guztiok izan beharko
genuke **feminista**

GUZTIOK IZAN BEHARKO GENUKE FEMINISTA

2. Hitzaurrea: Feminismoa min
baten iraultza da. *Lorea Agirre*

10. Guztiok izan beharko genuke
feminista. *Chimamanda Ngozi*

Argitaratzailea: **XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA**

Errekalde hiribidea 59, 1. solairua. 20018 DONOSTIA. Gipuzkoa
Tel: 943/ 371 408 www.hikhasi.eus hikhasi@hikhasi.eus
Lege Gordailua: SS-201-2017. ISBN: 978-84-944746-3-7

Argitaratzailea: Xangorin-hik hasi **Inprimategia:** AN'zA S.A.L.

Azaleko konposizioa: hik hasi **Itzulpena:** Euskaratu-AEK

Sustatzailea: Plazara Goaz **Kopurua:** 8.000 ale

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila onetsia: 2017-01-19

Hitzaurrea: FEMINISMOA MIN BATEN IRAULTZA DA

Zein da egiten zaigun gure bizitzako lehen galdera oraindik hizketarako ere gai ez garenean? Zein da erantzun behar izaten dugun lehen galdera hilabeteko umeak garela? Edo, hobeto esan, zer da irakasten diguten lehen gauzatariko bat? Norberaren izena. Ze izen aukeratu dizuten. Non dago Manex? galdetzen zaio haurtxoari, eta eskuarekin bere burua seinala dezan erakusten zaio. Zu zara Manex. Eta izan zaitezke Uxoa, izan zaitezke Eider, izan zaitezke Lorea. Izan zaitezke Harkaitz, izan zaitezke Haritz, izan zaitezke Zigor.

Libre aukeratua al da Lorea, Eider, Harkaitz edo Haritz deitu zaitzaten? Zerk determinatzen du izen bat edo beste? Lehen-lehenik, bistan da, sexu biologikoak. Neska jaio bazara lehen bi izen horiek toka dakizkizuke; mutil jaiotzen bazara, beste biak. Zehatzago ere esan liteke. Aludun jaiotzen bazara Lorea edo Eider izango zara. Zakildun jaiotzen bazara, Harkaitz edo Haritz.

Galde genezake zer dagoen aludun eta zakildun bereizi behar horretan. Galdera haizu da. Eta, baita ere, beste ezaugarriren bategatik taldekako bereizketak egitea posible ote litzatekeen. Inon eta inoiz egin ote den. Askori irudituko zaio ez dagoela beste bereizketa posiblerik eta alu eta zakil arteko bereizketa hori dela dagoen eta naturalena.

Bereizketa, taldekaketa, banaketa naturalik ez dago. Taxonomia guztiak dira asmatuak, garaian garai eta lekuan leku. Are, leku eta garai berean, segundo eta mende bera partekatzen duten taxonomia asko dago. Nork mundua bere modura, bere beharretara eta interesetara makurtzen du. Taxonomia guztiak beti dira partikularrak, nahiz eta giza talde bakoitzari berea berezkoa eta unibertsala dela irudititu. Txina inperialean, esate batera, animalien sailkapena oso zen zorrotza: enperadorearen jabego ziren animaliak, enperadorearenak ez zirenak, txakurrak, animalia lumadunak... Mendebaldean,

ugaztunak, hegaztiak, arraiak, narrastiak eta beste ditugu. Biak dira taxonomiak, eta biek funtzio bera betetzen dute zeinek bere kulturari: mundua sailkatzea, ordenatzea, menpean izatea. Eta, halere, ez dago taxonomia perfekturik, kanpo beti geratzen da zerbait, norbait, sailkaezina gertatzen dena, sortzen ditugun ezaugarrien taula hausten duena. Ornitorrinkoak buruhauste handiak ematen ditu beti eta edonon.

Naturaletik ez dago ezer guban. Beno, xamurrago esan, gure begirada ez da naturala, erabat kulturala baizik. Begirada naturalik ezinezko zaio gizakiari, hilko dela dakien unetik, alegia, bere buruaren kontzientzia duen unetik. Begirada naturala zakur batek du, txori batek. Bere buruaren mugatasunaz kontziente ez den izaki batek. Ez daki hilko denik, beraz ez daki bizi denik.

Baina galdera beste bat da oraingo honetan. Zer dago aludun bati Lorea izena jartzearen atzean eta zakildun bati Harkaitz? Zergatik ez neska bati Harkaitz deitu? Eta mutil bati Uxoa? Ze krak sortzen digu horrek? Ze min eragiten? Bereziki ze sentimendu? Ez al dugu sentitzen neska bati Harkaitz deitzea 'berez' -naturaz- ez dago-kion gogortasun bat -boterea- ematea dela? Eta mutil bati Uxoa deitzea 'berez' dagokion baino beherago jartzea -pribilegioak galaraztea-?

Lorea deitzen bazaituzte zer ikusten duten zugaran jaio orduko -eta baita jaio aurretik ere-: ederra edo edergarri izan litekeen zerbait, indargea agian, babesa behar duena, hauskorra dena, iraungaitza... Harkaitz deitzen bazaituzte indarra, gogortasuna, pitzaezintasuna, pieza batekoa dena, boteretsua dena, iraunkorra, aldagaitza dena ari gara izendatzen. Beraz, ze espero du munduak zugarandik Lorea izendatzen zaituztenean? Eta Harkaitz zarela esaten dizutenean? Ze proiektatzen dute zugaran? Zer aurreratzen? Noraino iritsiko zaren begitantzeari, zer ikusten dute etorkizunean? Non ikusten zaituzte? Zer izango zaren? Eta zer ez?

Umeak egiten duen lehen galdera funtsezkoenetako bat hizketa menperatzen hasten denean -eta, horrenbestez, hizkuntzaren barne

arauekin batera bizitzea egokitu zaion munduaren kodeak ulertzen eta munduaren eskema batez jabetzen hasten denean– zein da? Ni zer naiz, neska edo mutila? Ile motza dudalako mutila naiz? Edo, baieztapena, ni neska naiz, ni mutila naiz.

Ados, neska naiz. Eta Lorea Eider Uxoia dut izena.

Ados, mutila naiz. Eta Harkaitz Haritz Zigor dut izena.

Bi galdera horiek –bata besteek egina, eta bigarrena norberari aurreko galderak eraginda– planteatzen direnean, jada, gure gizartearen antolamendu osoaren oinarrian dagoen sistema desberdinkeria sortzailea sartzen zaio umeari hezur-mamietaraino. Gorpuztu egiten zaio. Hori da jada. Hori gara. Sexu-genero sistema batean berezitate jendea. Sexu bereizketan eta bereizkerian, eta gizonen nagusitasunean. Horixe da patriarkatua.

RuPaul artista aktibistak esaten duen legez: “biluzik jaiotzen gara eta ondorengo guztia trabestismoa da”. Alegia, emakume eta gizon gisa eraikitzeke lan kultural nekagarria egiten dugula –eta hori, jakina, egin beharrekoa da, bestela ez ginateke pertsona izango–, baina hainbeste lan zer eta injustizia handi bat eraikitzeke, sufritu behar duen handi bat sortzeke. Zenbat tona sufritu behar da emakume bat eraikitzeke? Eta gizonezko bat eraikitzeke?

Gizon portatu, emakume portatu

Neska izatea beti izan da gutxiago izatea. Orain ere bai. Gertatzen da uneren batean inork ez duena neska izan nahi. Ez dago gona jantzi nahi duen mutilik –ez bada inauterietan–, horrek gutxiago izatea eragiten diolako, trufa, irainak jasotzea. Galtzak, aldiz, denok jantzen ditugu, tradizioz gizonezkoen jantzia izaki, emakumeek jantzean gehiago izatea dakarkielako. Normala, beraz, mutilek neska izan nahi ez izatea. Horregatik askotan askok sentitu dugu ez genuela neska izan nahi. Ez behintzat gizarteak neska edo emakume izateko agintzen digun eredu horretan. Agintzen dizun hori menpekotasuna delako. Hortaz aurrerago ohartzen zara, baina barneko krak hori oso-oso umetan sentitzen duzu. Eta krak hori errepikatuz doa, hazi ahala, nola lurrikara ixil baten erreplikak, nerabezaroan

erreplikak ugaritu egiten dira, alegia, krakak, alegia neska izateagatik erasoak, ukazioak, menperakuntzak, injustiziak, mugak. Eta horrek ez du etenik.

Emakumea eta gizona bi klase antagoniko gisa eraikitzen dira, Kate Millerren hitzetan, pertsonala politikoa dela esan zuen pentsalari feministaren hitzetan. Eta halaxe da. Gizon portatzea zer den bada-kigu. Virginie Despentesek argi idatzia du, gizonkeria tradizionala feminitatean lerraraztea bezain makineria mutilatzailea dela. Mutil izateko mutilatu egin behar zaituztela. Zer eskatzen zaio gizon bati gizon izateko? “Bere emozioak itotzea, bere sentsibilitatea mututzea, bere hauskortasun eta zaurgarritasunaz lotsatzea (...), zakilaren tamainaz larritzeraino arduratzea (...), ahuldaderik ez adieraztea, beti kolore diskretuekin janztea, beti lehen urratsa ematea, laguntza eskatzen ez jakitea, indarra balioan jartzea, ausarta izatea ausart izateko nahirik izan gabe ere, agresibitatea adieraztea, homosexuala izateaz beldur izatea gizona gizon bada ezin daiteke-elako inoiz penetratua izan, beste gizonzkoen indarkeriara kexatu gabe makurtzea, beti bere burua defendatzen jakitea...”.

Emakume portatzea kontrakoa da, beraz. Zer eskatzen zaio emakume bati emakume izan dadin? “Emozionala izatea, sentsibilitatez gainezka egotea, hauskortasuna eta zaurgarritasuna gizonen babesa bilatzeko armatzat erabiltzea, bere gorputzaren esklabo eta biktima izatea, argal egotea, eder izatea, ahuldadea adieraztea, arropa edergarriekin janztea, makilatzea, gizonaren zain egotea, lehen urratsa ez ematea, ausarta ez izatea, laguntza eskatzen jakitea, agresibitaterik inola ere ez adieraztea, bortxatua izan daitekeela barneratua izatea...”.

Neska eta mutil eraikitzen gaituzte, bere sufrimendu guztiarekin. Bai, baina mutilak prestigioa, plaza publikoa, boterea, erabakiguneak eta baliabideak izateko eraikitzen ditugu mutil. Eta neska prestigiorik ez izateko, etxean, eremu pribatuan egoteko, erabakiguneetan ez sartzeko eta botere eta baliabiderik ez izateko eraikitzen ditugu neska.

Izan ere, gizonaren kategoria da araua, legea, normala dena, beste dena ez-gizona da: emakumea eta emakume itxura har dezakeen edonor. Gizon ez dena bestea da, albokoa, ondokoa kasurik onenean, bazterrekoa, kontrarioa, etsaia kasurik txarrean. Emakumea gorputz penetragarria baita, bortxagarria, menderagarria, konkistatu daitekeen lurra. Hil daitekeena. Hori nerabezaroan kolpean ikasten dugu denok. Neska eta mutil. Gizon eta emakume.

Pronostikoen kontra jardun beharra

Science aldizkari entzutetsuak ikerketa argitaratu die Lin Bian eta Andrei Cimpian psikologoei berriki. Ondorioa: sei urteko neskatilek neskak edo emakumeak ez dituzte argiak eta azkarrak izatearekin lotzen; mutil eta gizonezkoak, aldiz, bai. Alegia, sei urterekin, jada, neskek euren generoa gutxiesten ikasi dute, gutxiago direla bada-kite. Eta horri jarraiki hasten dira atzeraka egiten, azkarrak edo oso azkarrak diren umeen artean ezin irudika dezakete euren burua, eta hor jada hasten dira 'erabakitzen' edo 'begitantzen' zer izan 'nahi' duten bizitzan, edo, bestela esan, ze espero dugun eurengandik barneratzen.

Kurioski, jakina, ikerketa horrek zentzua ematen dio bi ikerlariiek aurrez egindako beste bati, non esaten den emakume helduei 'oso azkarra izatea eskatzen duten lanpostu altuak' ez zaizkiela eskaintzen oro har. Itxi da zirkulua. Zientziaren kodean agertu zaigu edonork ikusi nahi badu ikusten duena. Bagenekiena. Egunero baieztatzen zaiguna. Eguneroko krak horiek denak, hainbeste gorputzetan.

Beti pronostikoen kontra jardun beharra ez da samurra, eta emakumeok pronostikoak hautsiz baino ezin dugu aurrera egin.

Ez dezagun neskei, neska jaiotzeagatik, guneak eta atea ukatzen jarraitu, ez ditzagun beldurtu; ez ditzagun mutilak erasotzaile eta tratu txarren emaile bihurtarazi, ez ditzagun beldurtu, eta irakats diezaiegun denei zapalduaren eta baztertuaren aldeko ardura hartzen.

Horrek guztiak generoaren auzia erdigunean jartzera behartzen gaitu. Geure identitatea goitik behera zeharkatzen, zedarritzen eta determinatzen duelako. Hara hemen zergatik den hain garrantzitsua generoaren begirada izatea. Generoak ezin du izan oin-ohar bat orriaren ezker bazterrean. Ez da gauza partikular bat. Ez da kontu pertsonal bat. Gai zentrala da. Herritar guztion auzia.

Feminista izan beharra dago

Generoaren begirada, esan dugu, baina generoaren begiradak feminista izatea dakar. Halabeharrez, baldin eta injustizia ikusi eta aldatzeko zirkunik egiteko prest ez bagaude behintzat. Hala bada, gauza bakoitzari bere izena jarri beharko zaio. Chimamanda Ngozi Adichiek liburutxo honetan dio “denok izan beharko genukeela feminista”. Simone de Beauvoir pentsalariaren “denok izan behar dugu feminista” haren aldaera bat. Beauvoir handiak jarri zizkigun oinarriak: “Emakume izatea ez da gertaera naturala. Historia jakin baten ondorioa da. Ez dago patu biologiko edo psikologikorik emakumea zer den definituko duenik. Emakumea historia baten emaitza da, zibilizazio batena (...). Emakumea bereziki haurtzaroak determinatzen du emakume bezala, hezkuntzak, mutilak adoretu eta hauspotu egiten dira eta neskatilak berehala jarrarazten dira bere tokian, eta horrek eurenengan sortzen du zerbait ez dena ez jaiotzezkoa ez berezkoa, ‘femenino betierekoa’ edo feminitatea deitu izan den hori...”.

Bere lekuan jartzea. Hori da neskatilei egiten zaiena eta hori da emakume batengan gauzarik itsusiena eta gaitzesgarriena, bere lekutik kanpo egotea, bere espaziotik, bere hitzetatik, bere hizkeratik, bere ahots tonutik, bere gorputz neurrietatik, bere estetikatik, bere guneetatik, bere lanbideetatik, bere kaleetatik, bere plazetatik kanpo egotea. Bere hori bereizkerian oinarritutako leku beza bat da, ez dela bere ez berez, bortxaz, indarkeria sinbolikoz eta errealez beretu eta bezatutakoa baizik. Kaiolatik irtetea betitik zigortu izan da.

Desberdin izatea ez baita diferente izatea. Entzuten denez batzuetan, desberdin gara gizon eta emakume eta hori da diferentzia. Ez, diferentzia ez da arazo, desberdin izan denok gara desberdin, izan

gizon izan emakume, izan gizon izendatu izan emakume izendatu. Denok gara bakanak, errepikaezinak, eta denok gara, hala ere, jaio garen kulturako seme-alaba. Arazoa da desberdin izatea ez dela diferente izatea baizik eta gutxiago izatea. Subordinatua izatea. Eta, are, diferentzia sarri esplotazio bihurtzen dela. Biologikoki edo kulturalki desberdin izatea ezin da injustizia parametroak elikatzeke arrazoi bat izan. Eta, tamalez, hori egunero elikatzen dugun gauza bat da.

Oraindik orain, entzuten da emakume eta gizonen arteko berdintasuna erdietsi dela emakumea lan munduan sartuz geroztik. Emakumea lanaren munduan inoiz egon ez balitz bezala; lehenik eta behin, lanera joango diren gazte horien erreprodukzio osoa egiten: erditu, hazi, hezi, jantzi, zaindu, sendatu, garbitu, kulturizatu, gizarteratu... -patriarkatua, bere menderakuntza propioa erreproduzitzen ere bai, jakina, baina baita erresistentziak praktikatzen ere-. Eta erreprodukzio zaintza lan eskergaitz eta obligaziozko hori produkzio sistema osoak funtziona dezan ezinbesteko da. Ados, ordaindutako lanari deitzen diogula lan soilik. Orduan, ordaindu gabeko lanari, musu-truk egiten denari, ez ote dakioke esklabotza deitu, Silvia Federicik dioen legez. Ez da eroso esklaboaren isla ematen dizun ispiluan begiratzea. Bai, egia da. Baina esklabo ez izateko lehen urratsa da.

2015eko abenduan, Suedian, 16 urteko ikasle guztiei liburu honen ale bana ematea erabaki zuen hezkuntza agintaritzak. Izan ere, neskak beste modu batera hezi behar ditugu, bai, baina baita mutilak ere. Neska eta mutil feministak hezi behar ditugu. Bai, badakit feminista hitzak ze beldur haizatzen dituen. Ezjakintasun hutsetik, askotan, eta, pribilegioa eta boterea galdu nahi ez izatetik ia gehienetan.

Zer da, bada, feminismoa halako beldurra sortzeko? Angela Davisek zera dio: "Feminismoa emakumea gizakia dela defendatzen duen ideia erradikala da". Pentsa horrek zer esan nahi duen, edota hori esan beharrak zer esan nahi duen. Zer ez den emakumea.

Feminismoa emakumeon eskubideen eta berdintasunaren aldarrikapenetik harago doa. Botereaz ari gara. Botere harremanez. Berritzeaz. Justuagoak egiteaz. Berdintasuna zentzu zabalean erdiesteaz, azpiratuak boteretzeaz, elkarren zaintza erdigunean jartzeaz. Gizarte justuago eta bizigarriago bat erdiesteko pentsamendu eta praxi politikoko kultura bat da. Bestela ere esan daiteke, Virginie Despentesen hitzak erabiliz: “Feminismoa eguneroko iraultza bat da, egunez egunekoa”.

Feminismoa min bat da. Jakin-min bat. Jakintza bat. Jabetze bat. Ahalduntze bat. Boteretze bat. Izan neska izan mutil izan emakume izan gizon izan zernahi izendatu gaituztela. Lorea Harkaitz Uxo Haritz Eider Zigor. Krak horiek, min horiek, lurrikararen erreplika horiek sentitzen dituzu? Feminismoak ematen dio zentzua lurrikara horri guztiari. Eta ulertu egiten duzu zer ari den gertatzen, eta leku bat ematen dizu munduan, leku eder bat desikasi, deseraiki eta zeure buruaz beste bat egiteko.

Lorea Agirre Dorronsoro, 2017ko otsailean

GUZTIOK IZAN BEHARKO GENUKE FEMINISTA

Okoloma zen nire haurtzaroko lagunik onenetakoa. Kale berean bizi ginen, eta neba zaharra balitz bezala zaintzen ninduen: mutil bat atsegin banuen, Okolomari eskatzen nion iritzia. Okoloma barregarria eta azkarra zen, eta cowboy-bota puntadunak janzten zituen. 2005eko abenduan, hegazkin-istripu batean hil zen Okoloma, Nigeriako hegoaldean. Kostatu egiten zait oraindik nola sentitu nintzen adieraztea. Okolomarekin eztabaidan ari nintekeen, berarekin barre egin neza-keen, baita gai serioez hitz egin ere. Hark deitu zidan lehenik “feminista”.

14 urte inguru izango nituen. Haren etxean geunden, eztabaidan, biok ere irakurritako liburu guztietako eza- gutza mordoa ezin digerituta artean. Ez dut gogoratzen zehazki zeri buruz ari ginen eztabaidan. Baina gogoan dut nire erretolikaren erdian Okolomak zera esan zidala, begietara begira:

—Badakizu feminista zarela?

Ez zen konplimendua. Tonuagatik ohartu nintzen, tonu horrekin berarekin esan baitziedadakeen beste edonork “Terrorismoa babesten duzu”.

Nik ez nekien zer esan nahi zuen, zehazki, “feminista”

hitz horrek. Baina ez nuen nahi Okoloma nire ezjakintasunaz ohar zedin. Beraz, ez nuen aintzakotzat hartu, eta eztabaidan jarraitu nuen. Etxera iritsi bezain laster, baina, hitza hiztegian bilatzeko lana hartu nuen.

-- 0 --

Egin dezagun jauzi denboran.

2003an, *Hibisko-lore purpura* (*Purple hibiscus*) izeneko eleberria argitaratu nuen, besteak beste, emaztea jotzen duen gizon bati buruzkoa. Istorioa ez da ongi amaitzen. Nigerian eleberriaren sustapen-lanetan ari nintzen bitartean, atsegina eta asmo onekoa zen gizonezko kazetari batek esan zidan aholku bat eman nahi zidala. (Nigeriarrak beti izaten dira eskatu gabeko aholkuak emateko prest, agian jakingo duzuen bezala).

Aipatu zidan jendeak zioela eleberria feminista zela, eta haren aholkua nire burua feminista gisa ez aurkeztea zen —buruarekin ezetz eginez, triste bezala, esan zidan—, feministak zoritxarrekoak izan ohi direlako, eta ezin izaten dutelako senarrik aurkitu.

Hortaz, nire burua “feminista zoriontsu” gisa aurkeztea erabaki nuen.

Garai berean, akademiako kide batek, emakume nigeriar batek, esan zidan feminismoa ez zela gure kulturaren parte, feminismoa antiafrikarra zela, eta nire burua feministatzat nuela Mendebaldeko liburuaren eraginpean nengoelako, besterik ez. (Dibertigarria iruditu zitzaidan, nire gaztaroko irakurgai gehienak benetan antifeministak izan zirelako: hamasei urte betetzerako, irakurriak nituen Mills & Boonek argitaratutako eleberri erromantiko guztiak. Gainera, “feminismoaren testu klasikoak” izenez ezagutzen direnak irakurtzen saiatzen nintzen bakoitzean, aspertu, eta lanak izaten nituen amaitzeko).

Edonola ere, feminismoa antiafrikarra zenez, erabakia hartu nuen nire burua “feminista zoriontsu afrikar” gisa aurkezten hasteko. Gero, lagun batek esan zidan feminista gisa aurkezteak esan nahi zuela gizonak gorrotatzen nituela. Horren ondorioz, “gizonak gorrotatzen ez dituen feminista zoriontsu afrikarra” izango nintzela deliberatu nuen. Halako batean, “gizonak gorrotatzen ez dituen eta ezpain-margoa eta takoiak bere gusturako eta gizonezkoen gusturako daramatzen feminista zoriontsu afrikarra” izatera ere iritsi nintzen.

Noski, horren zati handi bat ironia-kontua baino ez zen izan, baina “feminista” hitzak jasaten duen konnotazio-gainkargaren adierazgarria da. Konnotazio negatiboak, noski.

Gizonak gorrotatzen dituzu; titi-zorroak gorrotatzen dituzu. Kultura afrikarra gorrotatzen duzu; uste duzu emakumeek beti agindu beharko luketela; ez duzu makillajerik erabiltzen; beti zaude haserre; ez duzu umorerik, eta ez duzu desodoranterik erabiltzen.

-- 0 --

Haurtzaroko istorio bat kontatuko dut.

Snukkan, Nigeriako hego-ekialdeko unibertsitate-hirian, Lehen hezkuntzako ikaslea nintzenean, hiruhi-lekoaren hasieran azterketa jarriko zigula esan zigun irakasleak, eta nota onena ateratzen zuena ikasgelako begiralea izango zela. Ardura hori izatea ez zen ahuntzaren gauerdiko eztula. Ikasgelako begiralea izanik, zalaparta sortzen zutenen izen-abizenak jaso behar zenituen egunero —botere-mozkorraldia eragiten du horrek, baina gure irakasleak, gainera, makila ematen zizun, eskuan eraman zenezan zalapartarien bila ikasgela goitik behera zeharkatzen zenuen bitartean. Jakina, makila erabiltzea ez zegoen baimenduta. Bederatzi urteko ni bezalako neskato batentzat, baina, egoera zirraragarria zen hura. Ikasgelako begiralea izateko irrikan nengoen, eta, beraz, notarik onena atera nuen azterketan.

Orduan, nire harridurarako, irakasleak esan zuen begiraleak mutila izan behar zuela. Hori ez zuen alde zuretik azaldu; jakintzat eman zuen xehetasun hura. Bigarren nota onena mutiko batek atera zuen, eta hura izango zen ikasgelako begiralea.

Interesgarriena da mutiko hura izaki gozo eta atsegina zela; ez zuen inolako interesik, makila eskuan, ikasgela alderik alde zeharkatzeko. Ni, aldiz, irrikan nengoen, esan bezala.

Baina ni emakumea nintzen, eta hura gizona; hortaz, mutikoa izan zen begiralea.

Sekula ez dut ahaztu gertaera hura.

Zerbait behin eta berriz egiten badugu, azkenean normaltzat jotzen dugu. Gauza bera behin eta berriz ikusten badugu, azkenean normala izango da. Ikasgelako begirale gizonak baino ezin badaitezke izan, uneren batean pentsatuko dugu, jabetu ez arren, ikasgelako begiraleak mutikoa izan behar duela. Enpresetako zuzendaritzan gizonezkoak besterik ez badugu ikusten, “naturala” irudituko zaigu gizonezkoak baino ez izatea enpresetako presidenteak.

-- 0 --

Sarri erratzen naiz, nire ustez agerikoa den zerbait beste guztientzat ere halakoa dela pentsatuz. Adibidez, Louis lagun maitea, gizon azkar eta progresista. Batzuetan, gure arteko elkarrizketetan, zera esaten zidan: “Ez dut ulertzen zer esan nahi duzun esaten duzunean emakumeentzat gauzak ezberdinak eta, are gehiago, zailagoak direla. Beharbada, izango ziren lehen, baina ez gaur egun. Orain, emakumeak ondo daude”. Nik ez nuen ulertzen Louisek gaitasunik ez izatea itxuraz hain agerikoa zena ikusteko.

Izugarri gustatzen zait Nigeriara bisitan itzultzea, eta Lagosen pasatzen dut denbora gehien, herrialdeko hiri eta gune komertzial handiena den horretan. Tarteka, iluntzean, beroak horren gogor jotzen ez duenean, lagunekin edo senideekin irteten naiz taberna eta kafe-tegietara. Halako gaualdi batean, Louis eta biok irten ginen, lagunekin batera.

Bada elementu zoragarri bat Lagosen, hiri-altzarien artean: energiaz betetako gazteak, hainbat saltokiren aurrean zain egoten direnak eta autoa aparkatzen “laguntzen” dizutenak, keinu nabarmenak eginez.

Lagos hiriak ia hogeit hamar milioi lagun ditu; Londresekin baino energia gehiago dauka, eta New Yorkekin baino enpresa-espíritu handiagoa. Hala, gai dira hango biztanleak sos batzuk ateratzeko mila modu asmatzeko. Hiri gehienetan gertatzen den bezalaxe, zaila gerta daiteke afalorduan aparkalekua aurkitzea, eta, beraz, gazte horiek aparkalekuak topatuz ateratzen dute bizimodua: zuretzat aukeratutako aparkalekuraino

eramaten zaituzte, beste batzuk eskuragarri egonda ere, keinu egiteari utzi gabe eta itzuli arte autoa “zainduko” dizutela esanez behin eta berriz. Bereziki harritu ninduten gau hartan aparkalekua aurkitu zigun gizon haren keinuek. Hala, bagindoazenean, eskupekoa ematea erabaki nuen. Poltsa ireki, dirua ateratzeko eskua sartu, eta gizonari eman nion. Pozik eta esker onez, gizonak dirua onartu, eta zera esan zuen, Louisi begira:

—Eskerrik asko, jauna!

Louisek, niri begira harrituta, galdetu zuen:

—Zergatik eman dizkit niri eskerrak? Dirua ez diot nik eman.

Orduan, ulertu zuela azkenean ikusi nuen haren aurpegian. Gizonak uste zuen nik emandako dirua Louisena zela. Louis gizona delako.

-- 0 --

Ezberdinak gara gizonak eta emakumeak. Hormona ezberdinak, sexu-organo ezberdinak eta gaitasun biologiko ezberdinak ditugu: emakumeek haurrak izan ditzakete; gizonezkoek ez. Gizonek testosterona gehiago eta, oro har, indar fisiko handiagoa dute emakumeek baino. Munduan, biztanleria femeninoa pixka bat handiagoa da —munduko biztanleen % 52 dira emakumeak—, eta, hala ere, boterea eta prestigiozko kargu gehienak gizonezkoen eskuetan daude. Wangari Maathai Nobel saridun kenyarrak oso argi eta zuzen azaldu zuen: “Zenbat eta gorago iritsi, orduan eta emakume gutxiago aurkituko dituzu”.

Ameriketako Estatu Batuetako azken hauteskundee-tan, etengabe entzun genituen Lilly Ledbetter Legeari buruzko kontuak, baina, aliterazio arranditsutik harago joanez gero, egoera honi erantzun nahi zion lege horrek: Estatu Batuetan, gizon batek eta emakume batek lan bera egin dezakete, prestakuntza bera izanda, baina gizonak ordainsari handiagoa jasoko du, gizona delako, besterik gabe.

Hala, zentzu hertsian, gizonezkoek gobernatzen dute mundua. Horrek zentzua zuen orain dela milaka urte. Garai hartan, gizakien iraupenerako ezaugarri behinena indar fisikoa zen munduan; pertsona batek zenbat eta indar fisiko handiagoa izan, orduan eta aukera gehiago zituen buruzagia izateko. Eta, oro har, indartsuagoak dira gizonezkoak fisikoki. (Noski, salbuespen asko daude.) Gaur egun, erabat bestelakoa da mundua. Buruzagia izateko gaitasun handiena duena ez da orain

indar fisiko handiena duena, baizik eta azkarrena, ezagutza gehien dituen, sortzaileena edota berritzaileena. Ezaugarri horiek izateko, ez dago hormonon beharrik. Emakumeak gizonak adinako adimena izan dezake, eta hura bezain sortzailea eta berritzailea izan daiteke. Eboluzionatu egin dugu. Generoari buruzko gure ideiak, aldiz, ez dira neurri berean bilakatu.

-- 0 --

Orain gutxi, Nigeriako hotelik onenetako baten atartean sartu nintzenean, atezain batek geldiarazi eta hainbat galdera deseroso egin zizkidan: bisitatuko nuen pertsonaren izena eta gela-zenbakia, pertsona hura ezagutzen nuen, giltza elektronikoa erakutsiko nion hoteleko bezeroa nintzela frogatu ahal izateko... Mundu guztiak automatikoki pentsatzen baitu hotel batean bakarrik sartzen den emakume nigeriarra sexu-langilea dela. Pentsaezina baita emakume nigeriarra bere logela ordaintzen duen bezeroa izatea. Hotel berean sartzen den gizonari, ostera, ez diote trabarik ipiniko. Egintzat jotzen da zilegizko arrazoiengatik dagoela han. (Honen guztiaren harira, hotel horiek zergatik ez diote aurka egiten sexu-langileen eskaerari, eskaintza agerikoari soilik egin beharrean?)

Lagosan, giro oneko klub eta taberna asko daude, baina ezin naiz bakarrik sartu. *Bakarrik* bazaude eta emakumea bazara, ez dizute sartzen uzten. Gizon batek lagunduta sartu behar duzu. Hala, nire lagun batzuk emakume ezezagunen eskutik helduta sartzen dira klubetara, emakume ezezagun horiek bakarrik dauden emakumeak direlako eta ez dutelako izan “laguntza” eskatu beste erremediorik.

Nigeriako jatetxe batean gizon batekin sartzen naizen aldiro, zerbitzariak gizonari egiten dio ongietorria, niri ez ikusiarena egitearekin batera. Gizonak emakumeak baino garrantzitsuagoak direla irakatsi dien jendarte baten ondorio dira zerbitzariok; jakin badakit ez dutela asmo txarrez egiten, baina gauza bat da zerbait jakitea

adimenari esker, eta beste bat maila emozionalean hori sentitzea. Aintzat hartzen ez nauten bakoitzean, ikusezin sentitzen naiz. Haserretu egiten naiz. Gogoa izaten dut gizona bezain gizakia naizela esateko, eta agurra berdin-berdin merezi dudala. Txikikeriak dira, baina, batzuetan, gauza txikienak izaten dira mingarrienak.

Orain gutxi, artikulua bat idatzi nuen Lagosen emakume gaztea izatearen esperientziari buruz. Bada, ezagun batek esan zidan amorruez betetako artikulua zela eta ez nuela hainbesteko amorrurekin idatzi behar. Dena den, nik neureari eutsi nion. Amorruez beteta zegoen, noski. Egungo egoera, generoari dagokionez, oso bidegabea da. Amorratuta nago. Guztiok egon beharko genuke amorratuta. Amorruek historia luzea du, aldaketa positiboen eragile gisa. Amorruez gain, badut itxaropena ere, irmo sinesten dudalako gizakiek gaitasun handia dutela beren burua onerako berreraikitzeke.

Baina itzul gaitezen amorrura. Ohartarazpen-ñabardura sumatu nuen ezagun haren tonuan, eta konturatu nintzen iruzkin hura, nire artikuluz ez ezik, nire izaeraz ere ari zela. Tonu hark aditzera ematen zidanek, amorruek ez da komenigarria emakume batengan, bereziki. Emakumea baldin bazara, ez duzu amorrurik adierazi behar, mehatxuzkoa gerta baitaiteke esandakoa. Lagun estatubatuar batek gizon baten zuzendaritza hartu zuen. Zuzendari ohia “handinahi eta gogortzat” jo zuten; gizon zakar, oldarkor eta bereziki zorrotza zen asistentzia-orriak sinatzerakoan. Laguna

postuaz jabetu zenean, uste zuen gizona bezain zorrotza izango zela, baina zertxobait atseginagoa, agian; gizonak ez zuen kontuan hartzen jendeak familia zuela, baina berak bai. Karguan aste gutxi batzuk zeramatzala, langile bat zigortu zuen asistentzia-orri bat faltsutzeagatik; alegia, aurrekoak egindako gauza bera egin zuen. Bada, langileak kexa ipini zuen zuzendaritzan, emakumearen estiloa zela-eta. Oldarkortzat jo, eta esan zuen zaila zela harekin lan egitea. Beste lankide batzuk ere ados agertu ziren. Horietako batek esan zuen, txundigarria bada ere, lanari “ukitu femeni-noa” emango ziola espero zuela, baina ez zela hala gertatu.

Haietako bakar bati ere ez zitzaion bururatu nire laguna aurrekoari laudorioak ekarri zizkion gauza bera ari zela egiten.

Beste lagun estatubatuar batek oso ondo ordaindutako lan bat dauka, publizitatearen alorrean. Lantaldean dauden bi emakumeetako bat da. Lagun horrek kontatu zidan nagusiak gutxietsita sentitu zela bilera batean: nagusiak ez zituen aintzat hartu haren iruzkinak, eta, gero, oso antzeko batzuk laudatu zituen, gizonezko batek egindakoak. Emakumeak gogoia sentitu zuen kexatzeko eta nagusia auzitan jartzeko, baina ez zuen halakorik egin. Aitzitik, bilera amaitutakoan, komu-nera joan eta negarrari eman zitzaion; gero, barrenak husteko hots egin zidan. Ez zuen kexatu nahi izan, oldarkor itxura ez ematearren. Erresuminari barrenak jan ziezazkion uztera mugatu zen.

Atentzioa eman zidan lagun hark eta beste lagun estatubatuar askok zenbateko ahalegina egiten duten jendearen “gogoko” izateko. Ematen du gainerakoen gustukoa izatea oso garrantzitsua delako usteen hezita daudela, eta “gogokoa” izate horrek oso gauza zehatza dakar: alde batera uzten du amorrua adieraztea, oldarkorra izatea edota desadostasuna ozenegi agertzea.

Denbora gehiegi pasatzen dugu neskatoei mutikoei eurei buruz pentsatuko dutenaz kezkatu behar dutela irakasten. Mutikoei, ordea, ez diegu irakasten gogokoa izatearen gaineko kezka izaten. Denbora gehiegi ematen dugu neskatoei esaten ez dutela amorratuak izan behar, ezta oldarkorrek eta zorrotzak ere, eta hori txarra da berez, baina are okerragoa da gero buelta ematea eta gizonetzakoak jokabide berberengatik laudatzea edo zuritzea. Mundua beteta dago emakumeei gizonak erakartzeko edota haiei atsegin emateko zer egin behar duten, nolakoak izan behar duten eta nolakoak ez, esaten dieten aldizkari-artikuluz eta liburuz. Askoz gidaliburu gutxiago dago gizoni irakasteko emakumeei nola eman atsegin.

Idazketa-lantegi bat ematen dut Lagosen eta, egun batean, parte-hartzaileetako batek kontatu zidan —emakume gaztea— lagun batek esan ziola ez entzuteko nire “diskurtso feministak”, nire ideiak xurgatuko zituelako eta senar-emazte bizimodua hondatuko zitzaiolako. Gure jendartean, mehatxu hori —senar-emazte lotura haustea eta inoiz ez izatea beste bat edukitzeko aukera— askoz errazago erabiliko da ema-

kumearen aurka gizonaren aurka baino.

Generoak badu garrantzia mundu osoan. Gaur, beste-lako mundu bat egiteko planarekin amesten has gaitetzen eskatu nahi nuke. Mundu bidezkoagoa. Beren buruarekin zoriontsuago eta zintzoago izango diren emakumeez eta gizonez osatutako mundua. Hauxe da horretan hasteko modua: beste era batean hezi behar ditugu alabak, baita semeak ere.

-- 0 --

Gure semeak hazteko moduak ez die haiei batere mesederik egiten. Umeen gizatasuna erreprimitu egiten dugu. Maskulinitatea estu-estu zedarritzen dugu. Kaiola txiki eta gogorra da maskulinitatea, eta hantxe sartzen ditugu mutikoak.

Ahuleziaren, sentiberatasunaren eta izuaren beldur izaten irakasten diegu. Benetan nor diren ezkututzen irakasten diegu, *gizon gogorrek* izan behar dutelako, Nigerian esaten dugun bezala.

Bigarren hezkuntzan, mutiko bat eta neskato bat, nerabeak biak, elkarrekin ateratzen dira, patrikan ia dirurik ez dutela. Berdin dio, mutikoak ordaindu behar du kontua beti, haren maskulinitatea agertzeko. (Gero, gure buruari galdetuko diogu zergatik lapurtzen dieten mutikoek dirua gurasoei.)

Neskei eta mutilei ez bagenie irakatsiko maskulinitatea eta dirua elkarrekin lotzen? Euren jarrera ez balitz izango “mutilak ordaindu behar du”, baizik eta “ordain dezala gehien duenak”? Noski, abantaila historikoari esker, gizonak eduki ohi du gehien gaur egun. Baina seme-alabak bestela hazten hasiko bagina, mutilak ez lirateke sentituko euren maskulinitatea bitarteko materialen bidez erakutsi beharraren presiopean, berrogeita hamar edo ehun urte barru.

Hala ere, mutikoei egiten diegun gauzarik okerrrena ego hauskorra bereganatzera bultzatzea da, gogorrek izan behar dutela behin eta berriz sentiarazita. Gizon bat gogorra sentitzera zenbat eta gehiago behartu, orduan eta hauskorragoa bilakatuko da haren egoa.

Neskatoei ere mesede eskasa egiten diegu, ego maskulino hauskor horren zerbitzura egoteko hazten baititugu.

Neskei txikitzen, gutxiagotzen irakasten diegu.

Neskatoei esaten diegu: “Izan dezakezu handinahia, baina ez gehiegi. Arrakasta izaten saiatu behar duzu, baina ez gehiegi; bestela, gizona zuei mehatxu egingo diezu. Gizon batekin duzun harremanean sostengu ekonomikoa bazara, disimula ezazu, jendaurrean batik bat; bestela, gizona zikiratuko duzu”.

Baina zer gertatuko litzateke, premisa hori auzitan ipiniko bagenu? Zergatik izan behar du emakumearen arrakastak mehatxu gizonarentzat? Eta hitz hori, “zikiratu” (ez dakit baden ere gehiago gorrota dezake-dan beste hitzik), baztertuko bagenu, besterik gabe?

Ezagun nigeriar batek galdetu zidan behin gizona-koak kikiltzeak kezkatzen ninduen.

Ni ez ninduen batere kezkatzen horrek. Izan ere, horretan pentsatu ere ez nuen egin; ez nekien kezkatzen ninduen ala ez, nik kikiltzeko moduko gizon bat batere interesik sortzen ez didan gizona delako.

Hala ere, harritu egin ninduen galderak. Emakumea naizenez, ezkontza da niretzat espero dena. Nigandik espero dena da bizitzarako erabakiak hartzea, sekula ahaztu gabe ezkontza dela garrantzitsuena. Senar-emazte bizimodua ona izan daiteke, plazera, maitasuna eta elkarrenganako babesa izan daitekeen neurrian. Baina zergatik irakasten diegu neskatoei horren zain egoten, eta mutikoei, aldiz, ez?

Emakume nigeriar ezagun batek etxea saltzea erabaki zuen, agian ez zuelako kikildu nahi berarekin ezkondu nahiko zuen gizona.

Nigeriako emakume ezkongabe ezagun batek, mintegietara joaten denean, ezkontza-eraztuna eramaten du, berak dioenez, lankideek “errespetatzen” nahi duelako.

Tristeena da ezkontza-eraztunak automatikoki bilakatzen duela errespetagarriagoa, eta, eraztuna jantzi ezean, errazagoa izango dela ez hartzea seriotasunez; hori guztia lan-giro modernoan gertatzen da.

Emakume gazteak ere ezagutzen ditut, ezkontzeko halako presio handi bat pairatzen dutenak —familia-
ren eta lagunaren aldetik, baita lan-esparrutik ere—, eta presio horrek erabaki ikaragarriak hartzera eramaten ditu.

Ezkongetasuna porrot pertsonaltzat hartzen irakasten die gure gizarteak adin bateko neska ezkongabeei.

Aitzitik, ezkondu gabeko adin bateko gizona oraindik aukeratzen ariko delako izango da ezkongabea.

Erraza da esatea emakumeek EZ esan diezaioketela horri guztiari. Errealitatea, ordea, zailagoa eta konplexuagoa da. Guztiok gara izaki sozialak. Guztiok barneratzen ditugu gure sozializazioaren ideiak.

Gure mintzairak ere horixe frogatzen du. Ezkontzarekin loturiko hizkera maiz oinarritzen da jabetzan, adiskidetasunean oinarritu beharrean.

“Errespetu” hitza erabiltzen dugu emakumeak gizonari zor diona adierazteko, baina ia inoiz ez gizonak emakumeari zor dionaz mintzatzeko.

Gizonek zein emakumeek esaten dute: “Honakoa edo harakoa egin dut, senar-emazte bizimoduan bakea izateko”.

Gizonek esaten dutenean, egin beharko ez luketen zerbaitez ari dira. Lagunei samindura-kutsuz esaten dieten zerbaitez da, azken batean euren maskulinitatea erakusten duen zerbaitez: “O, emazteak esan dit ezin naizela gauero joan diskoteketara, eta, horregatik, senar-emazte bizimodu baketsua izateko, asteburuetan baino ez naiz ateratzen”.

Emakumeek esaten dutenean “honakoa edo harakoa egin dut senar-emazte bizimoduan bakea izateko”, lanpostu, helburu profesional edota amets bati uko egin diotelako izan ohi da.

Neskei erakusten diegu emakumeek egiten dutela uko gehien gizonen eta emakumeen arteko harremanetan. Euren burua lehiakide gisa ikus dezaten hazten ditugu emakumeak, eta ez lanpostu edo lorpen pertsonaletan lehiakide, hori positiboa izan baitaiteke, nire ustez; baina gizonezkoen arretari begira lehiakide senti daitezzen hezten ditugu.

Emakumeei izaki sexualak ezin direla izan irakasten diegu, ez gizonen maila berean. Semeak izanez gero, ez zaigu axola neska-laguna dutela jakitea. Baina gure alabek mutil-laguna izatea? Jainkoarren, ez, mesedez. (Baina, noski, unea iristean, espero dugu gizon perfek-

tua ekarriko duela etxera, harekin ezkon dadin).

Neskekin, polizia-lanak egiten ditugu. Euren birjintasuna dela-eta laudorioak egiten dizkiegu; mutilei, ordea, ez (neure buruari galdetzen diot nolatan ote den hori, birjintasuna galtzea genero ezberdineko bi pertsona behar dituen prozesua den heinean).

Orain dela gutxi, neska gazte bat taldean bortxatu zuten Nigeriako unibertsitate batean, eta, neska zein mutil, gazte nigeriar askoren erreakzioa halako zerbait izan zen: “Ados, gaizki dago bortxatzea, baina zertan ari zen emakume hura bera bakarrik lau mutilekin logela batean?”.

Ahantz dezagun, ahal izanez gero, erreakzio horren gizagabetasun ikaragarria. Emakumeak berez errudunak direla pentsa dezaten hezi dituzte nigeriar horiek. Eta gizonezkoengandik hain gutxi espero izateko hazi dituzte, ezen izaki basati eta autokontrolik gabeak izan daitezkeelako ideia ere onargarri samarra izan daitekeen.

Lotsatiak izaten irakasten diegu neskei. “Itxi hankak”. “Estal zaitez”. Emakume jaiotze hutsagatik zerbaiten errudun direla sentiarazten diegu. Eta gertatzen dena da neskatoak desira esperimentatzen dutela esan ezin duten emakume bihurtzen direla; benetan pentsatzen duten ezin dutela esan; eta arte bilakatu dute itxurak egitea.

Ezagutzen dut emakume bat etxeko lanak gorroto dituen, baina gustatzen zaizkiolako plantak egiten ditu, irakatsi diotelako ezkongai egokia izateko “etxeko

emakumea” izan behar duela—Nigeriako beste kontzeptu bat erabilita—. Azkenean, emakumea ezkondu egin zen. Orduan hasi zen senarraren familia kexaka, aldatu egin zela esanez. Ez zen aldatu; plantak egiteaz nekatu zen, besterik gabe.

Nolakoak izan behar dugun agintzen digu generoak, benetan nolakoak garen aintzat hartu beharrean, eta horixe da arazoa. Imajinatu zein zoriontsuak izango ginatekeen, zein libre, benetan garena izanez, generoaren espektatiben zama nozitu gabe.

-- 0 --

Ukaezina da mutilak eta neskak ezberdinak direla biologikoki; baina sozializazioak puztu egiten ditu ezberdintasun horiek. Eta gero hasten da atzera elikatzen den prozesua. Errepara iezaiozue, adibidez, sukaldeari. Gaur egun, eskuarki emakumeak arduratzen dira eginbehar horietaz: sukaldean egiteaz eta garbitzeaz. Baina, zergatik? Akaso emakumeak sukalderako genearekin jaiotzen direlako? Edo urteen poderioz sukaldean aritzea euren zeregina dela sinesteko sozializatu dituztelako? Beharbada, esan behar nuen emakumeak sukaldean aritzeko genearekin jaiotzen direla, baina orduan gogoratu naiz munduko sukaldari ospetsu gehienak —“chef” titulu dotorea jasotzen duten horiek— gizonezkoak direla.

Nik amonari begiratzen nion —emakume bikaina zen—, eta nire buruari galdetzen nion nolakoa izango ote zen gizonezkoen aukera berak izan balitu. Egun, amonaren garaian baino aukera gehiago ditugu emakumeok, politikan eta legetan izandako aldaketei esker, eta oso garrantzitsuak dira aldaketa horiek.

Eta, hala ere, gure jarrerak eta pentsaerak pisu handiagoa izaten jarraitzen dute.

Zer gertatuko litzateke gure seme-alabak heztean, generoari baino gehiago, gaitasunari erreparatuko bagenio? Eta generoari arreta ipini beharrean, interesei erreparatuko bagenie?

-- 0 --

Ezagutzen dut seme bat eta alaba bat dituen familia bat. Neskatoak eta mutikoak urtebeteko aldea dute euren artean. Mutikoa gose denean, gurasoek zera esaten diote neskatoari: “Zoaz nebari berehalako fideo batzuk prestatzera”. Neskatoak ez du atsegin berehalako fideoak prestatzea, baina neska da, eta ezinbestean egin behar du. Lehen unetik gurasoek biei irakatsi izan baliete sukaldean egiten, zer? Sukaldean aritzea, bide batez, gaitasun praktikoa da, eta erabilgarria, mutil batentzat ere bai; beti pentsatu izan dut ez zuela zentzu handirik halako funtsezko kontu bat —nork bere burua elikatzeko gaitasuna— inoren esku uzteak.

Nire ezagun emakumezko batek senarraren titulu akademiko eta lanpostu berdinak ditu. Lanetik itzultzen direnean, emakumeak egiten ditu etxeko lan gehienak, senar-emazte askorekin gertatzen den bezalaxe, baina egun batean arreta eman zidan gizonak haurtxoari pixoihala aldatzen zion bakoitzean emakumeak eskerrak ematen zizkiola. Zer gertatuko litzateke emakumeak ohiko eta normaltzat joko balu gizonak haurtxoa zaintzen laguntzea?

-- 0 --

Saiatzen ari naiz hazi bitartean barneratutako genero-ikasgai asko eta asko desikasteko. Hala ere, batzuetan, kaltebera sentitzen naiz oraindik ere genero-espektatiben aurrean.

Lehen aldiz graduondoko idazketa-eskola eman nuenean, kezkatuta nengoen. Ez ikasgai-zerrendagatik, ondo prestatuta nuelako eta gustuko gaia irakatsiko nuelako. Jantzi behar nuen arropak kezkatzen ninduen. Serio har nintzaten nahi nuen.

Jakitun nintzen emakume izate hutsagatik nire baliozkotasuna *erakutsi* beharko nuela. Femeninoegi jarduteak kezkatzen ninduen. Ezpain-margoa eta gona polit bat jartzeko gogoa nuen, baina halakorik ez eramatea erabaki nuen. Oso serio jantzita joan nintzen, oso maskulino eta oso itsusi.

Auziaren egia gordina da: itxurari dagokionez, gizonezkoa dugu oraindik estandar, arau. Askok uste dugu emakumeak zenbat eta emetasun txikiagoa agertu, orduan eta errazago hartuko dutela serio. Lan-bilerara doan gizonak ez dio bere buruari galdetzen serio hartuko ote duten soinean daraman arroparen arabera, baina emakumezkoak, ordea, bai.

Nahiago nuke egun hartan halako jantzi itsusirik eraman ez izana. Ni neu izateko egungo konfiantza izan banu, ikasle haiek etekin handiago aterako zieten nire eskolei. Erosoago sentituko nintzelako, eta “ni neu” gehiago, modu osoagoan eta benetakoagoan.

Nire feminitateaz gehiago ez lotsatzea erabaki dut. Eta

errespetua nahi dut, naizen bezain femeninoa izanda. Merezi dudalako. Gogoko ditut politika eta historia, eta zorionsua naiz elkarrizketa intelektual on bat izaten dudanean. Femeninoa naiz. Zorioneko femeninoa. Gustuko ditut takoi altuak, eta ezpain-margoak probatzea ere bai. Atsegina da konplimenduak jasotzea, gizon zein emakumeengandik (hala ere, zintzoa izanda, nahiago ditut emakume dotoreengandik datozen konplimenduak), baina maiz janzten dut gizonezkoei gustatzen ez zaien arropa, edota “ulertzen” ez dutena. Gustuko dudalako eta gustura sentitzen naizelako janzten dut. Nire bizitzako erabakiei forma emateko garaian, nahiko anekdotikoa izaten da “begirada maskulinoa”.

-- 0 --

Ez da erraza generoari buruzko elkarrizketak izatea. Jendea deseroso sentiarazten dute eta, batzuetan, jendea sumindu ere egiten da. Gizonek nahiz emakumeek egiten diote uko generoaz hitz egiteari, edota joera izaten dute, genero-arazoei garrantzia berehala kentzeko. Beti izaten delako deserosoa gauzen egoera aldatzeari buruz pentsatzea.

Hainbatek galdetzen dute: “Zergatik erabili *feminista* hitza? Zergatik ez esan giza eskubideetan sinesten duzula, edo halako zerbait?”. Bada, ez litzatekeelako zintzoa izango. Argi dago feminismoa giza eskubide orokorren parte dela, baina “giza eskubideak” adierazpide generikoa erabiltzeak generoaren berariazko arazo berezia ukatzea dakar. Mendeetan emakumeak baztertuak izan ez direlako itxurak egitea da. Genero-arazoak emakumeak jomugan jartzen dituela ukatzea da. Tradizionalki, arazoa ez zela gizakia izatea, baizik eta sexu femeninoko gizakia izatea. Mendeetan, munduak bi multzo handitan bereizten zituen gizakiak, eta, gero, multzo horietako bat baztertu eta zapaltzeari ekiten zion. Bidezkoa da arazoaren irtenbidean horixe onartzea.

Zenbait gizon feminismoaren ideiak mehatxatuta sentitzen dira. Uste dut horren jatorria jasotako heziketak sorrarazten dien ziurgabetasunean dagoela, izan ere, euren autoestimua murriztu egiten da gizon gisa dagokien kontrola “naturaltasunez” ez daukatenean.

-- 0 --

Beste gizon batzuek honakoa esanez erantzun dezakete: “Ados, hori interesgarria da, baina nik ez dut horrela pentsatzen. Nik ez dut genero-ikuspegiez pentsatu ere egiten”.

Bada, beharbada ez.

Hortik dator, hain zuzen ere, arazoaren zati bat. Gizon askok ez dutelako aktiboki pentsatzen generoan, eta ez diotelako horri erreparatzen. Gizon askok esaten dutelako, Louis lagunak esan zidan bezala, lehen gauzak gaizki egon zitezkeela, baina orain ondo daudela. Eta gizon askok ez dutelako ezertxo egiten hori aldatzeko. Gizona izanik, jatetxe batean sartzen bazara eta zerbitzariak zu bakarrik agurtzen bazaitu, galdetzen al diozu: “Zergatik ez duzu agurtu nirekin datorren emakumea?”. Gizonek salatu egin behar dituzte itxuraz garrantzi gutxikoak diren egoera horiek.

Eta generoa gai deserosoa suerta daitekeenez, badira elkarrizketari amaiera emateko modu errazak.

Badira bilakaera biologikoaz eta tximinoez hitz egiten dutenak, tximino-emeak arren aurrean makurtu egiten direla eta antzekoak aipatuz. Baina kontua da gu ez garela tximinoak. Tximinoak zuhaitzetan bizi dira, eta zizareak jaten dituzte. Guk ez.

Badira esaten dutenak: “Beno, gizonezkoek ere gaizki pasatzen dute”. Eta egia da.

Baina hori ez da elkarrizketa honen gaia. Generoa eta klase soziala gauza ezberdinak dira. Gizon pobreek gizon izateak ematen dituen pribilegioez gozatzen

jarraitzen dute, aberatsen pribilegioez gozatu gabe ere.

Gizon beltzekin mintzatzearen mintzatzeaz asko ikasi dut zapalkuntza-sistemez eta elkarrenganako itsutasunaz. Behin batean, genero-kontuez hitz egiten ari nintzela, gizon batek zera esan zidan: "Zergatik hitz egin behar duzu emakume gisa? Zergatik ez duzu hitz egiten gizaki gisa?". Galdera-mota hori pertsona baten esperientzia zehatzak isilarazteko modua da. Jakina gizakia naizela, baina badira gauza zehatz batzuk munduan niri gertatzen zaizkidanak emakume izate hutsagatik. Bide batez, gizon horrek berak sarritan hitz egiten zuen gizon beltz moduan zuen esperientziaz. (Nik erantzun behar izaten nion: "Zergatik ez duzu zure esperientziez gizon edo gizaki gisa hitz egiten? Zergatik hitz egiten duzu gizon beltz gisa?").

Beraz, ez: elkarrizketa hau generoari buruzkoa da. Bada jendea esaten duena: "O, baina emakumeek dute benetako boterea, beheko boterea". (Nigeriako esamoldea da hori, gizonezkoengandik gauzak lortzeko euren sexualitateaz baliatzen diren emakumeei buruzkoa.) Baina beheko botere hori ez da benetako boterea, beheko boterea duen emakumea ez delako boteretsua bere kabuz; beste pertsona baten boterea lortzeko sarbidea baino ez dauka. Zer gertatzen da gizona umore txarrez edota gaixorik edota aldi baterako inpotente dagoenean?

Bada esaten duenik emakumeak gizonezkoen menpekoak direla, gure kultura delako. Baina etengabe aldatzen ari da kultura. Hamabost urteko iloba biki

ederrak dauzkat. Orain dela ehun urte jaio izan balira, eramán eta hil egingo zituzten, duela ehun urte igboen kulturak uste zuelako seinale txarra zela bikiak jaiotzea. Gaur egun, jardunbide hori pentsaezina da igboen herri osoarentzat.

Zer zentzu du kulturak? Azken batean, kulturak herri baten babesá eta iraupena ditu helburu. Gure familian, ni naiz garenari buruzko historian interes handiena duen alaba, gure antzinako lurrei buruzko interesa duena, gure tradizioaren gainekoa. Anai-arrebek ez dute hainbesteko interesik kontu horietan. Hala ere, baztertuta nago auzi horietatik, igboen kulturak gizonezkoak lehenesten dituelako, eta gizonak baino ezin direlako joan familiaren erabaki garrantzitsuak hartzeko bileretara. Hala, neuk izanda ere interesik handiena, ez daukat ez ahotsik, ez botorik. Emakumea naizelako.

Kulturak ez du jendea egiten. Jendeak egiten du kultura. Emakumeak eskubide guztiak dituzten gizaki ez izatea gure kulturaren parte bada, orduan, gure kultura alda dezakegu, eta aldatu behar dugu.

-- 0 --

Askotan gogoratzen naiz nire lagun Okolomaz. Jarraitu dezatela bakean atsedean hartzen berak eta Sosolisoko hegazkin-istripu hartan hildako guztiek ere. Maite dugunok beti izango dugu gogoan. Arrazoi zuen orain dela hainbeste urte “feminista” deitu zidanean. Feminista naiz.

Duela hainbeste urte, hitza hiztegian bilatu nuenean, hauxe aurkitu nuen: “Feminista: sexuen arteko berdintasun sozial, politiko eta ekonomikoan sinesten duen pertsona”.

Entzun ditudan istorioak kontuan hartuta, gure birramona ere feminista zen. Senartzat nahi ez zuen gizonaren etxetik ihes egin, eta berak aukeratutako gizonarekin ezkondu zen. Emakume izateagatik lurrak eta aukerak kentzen ari zitzaizkiola sentitu zuenean, ez zuen onartu; protesta egin, eta egoera salatu zuen. Birramonak ez zuen “feminista” hitza ezagutzen, baina horrek ez du esan nahi ez zenik. Askoz ere jende gehiagok aldarrikatu beharko luke hitz hori. Ezagutzen dudana feministarik onena Kene neba da, gazte atsegin, erakargarri eta oso maskulinoa ere badena. Neuk ematen dudana definizioaren arabera, feminista da honako hau esaten duen edozein gizon edo emakume: “Bai, gaur egun genero-egoerarekin arazorik bada eta konpondu behar badira, gauzak hobetu egin behar ditugu”.

Eta guztion artean hobetu behar ditugu, gizonek zein emakumeok.

-- 0 --

EGILEARI BURUZ

Chimamanda Ngozi Adichie 1977an jaio zen, Nigerian. Hemeretzi urte zituela, beka bat eskuratu zuen komunikazioa eta zientzia politikoak ikasteko, Filadelfian. Gero, *idazketa sortzailea* masterra egin zuen Portlandeko John Hopkins unibertsitatean, eta, egun, Nigeria eta Ameriketako Estatu Batuan bizi da. Gaur arte, lau eleberri argitaratu ditu: Hibisko-lore purpura (*Purple hibiscus*) (2005), Eguzki hori erdia (*Half of a yellow sun*) (Random House Literatura, 2014; Orange Prize for Fiction sariduna), Zure lepo inguruko hori (*The thing around your neck*) (Random House Literatura, 2010) eta Americanah (*Americanah*) (Random House Literatura, 2014), kritikaren laudorioak zein Chicago Tribune Heartland Prize 2013 saria jaso zituen.

www.chimamanda.com

www.facebook.com/chimamandaadichie

